

UDALAREN OSOKO BILKURA

2010eko apirilaren 22ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO JN.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL JN.

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA AND.

EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI AND.

EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JN.

EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ AND.

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO JN.

EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA JN.

EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA JN.

EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA AND.

PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO AND.

PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ JN.

PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA AND.

PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO JN.

PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ AND.

PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES JN.

PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ JN.

PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ JN.

PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS JN.

Leioako udaletxean, bi mila eta hamarreko apirilaren hogeita biko arratsaldeko zortziak eta hamar direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- HAPO-KO 14 C ARLOAREN (EARLE) PLANGINTZAREN ALDAKETA HASIERA ONESTEA. Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko

Informazio Batzordearen 2010eko martxoaren 30eko 40. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udal Plangintzako Aholku Batzordeak gai horri buruz igorritako txostenaren edukia irakurriko da.

“Udal-arkitektoak hainbat plano azaldu ditu, pantailan proiektatuz. Plano horietan, HAPOko 14C arloaren (Earle) plangintza aldatzeko proposamena zehazten da. Kontua da hirigintza-aprobetxamendua handitu nahi dela, ahal den neurrian garraio publikotik hurbil dauden aldeetan iraunkortasun-irizpideak optimizatzeko.

Planteatutako diseinuaren bidez, dauden industria-pabilioiak eraitsi, lurzorua deskontaminatu, eta hornidura publikoetarako ikastetxea jarri ahal izateko espazioak lor daitezke.

Artzagane eta Lamiakoko Auzokideen Elkarteetako ordezkariak honakoa adierazi dute: metropoli-trenbidea Lamiakotik pasatzean lurperatzea aldarrikatzeko erabili behar da espediente hau. Halaber, proposatutako diseinuak era desegokian etxebizitzak trenbidera hurbiltzen dituela uste dute.

EAJ-PNV eta EB-B taldeetako ordezkariak ustez, metroa lurperatzeko arazoa espediente honetatik kanpo dago eta dagokion foroan (Garraio Partzuergoa) planteatu behar da. Foro horretan, Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta udalak daude ordezkaturik eta lurralde-izaera duen obra honen diseinuan eta aurrekontuan egondako arazoak eta abar aztertzen diren eskualdeko.

Artzagane Auzokideen Elkarteetako ordezkariak ustez, foroa hau metroa lurperatzeko erabakia hartzeko egokiena ez den arren, gaia planteatu beharko litzateke.

Lamiakoko Auzokideen Elkarteetako ordezkariak galdetu du ea zein etxebizitza-mota eraiki daitekeen. Bere ustez, ez da osorik prezio babestukoa izan behar, aurreko espedienteetan bezala. Udal-teknikariak erantzun dute eraikigarritasunaren % 60 prezio libreko etxebizitzetarako izango dela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko EAeko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakoaren arabera. Horrela, gizarte aniztasun handiagoa lortuko da.

Saski Baloia Taldeetako ordezkariak azaldu duenez, etxebizitzetako jabeek arazoak izan ditzakete fatxada metro-trenbidetik hurbil egoteagatik. Hori horrela, eraikuntza-tipologia egokiagoa bilatzeko ahalegina egin beharko litzateke.

EAJ-PNVko ordezkariak adierazi dute hirigintza-arlo honetako (trenbideko trazaduraren eta Langileria kalearen artean) mugek Udaleko Bulego Teknikoak proposatutakoa moduko irtenbidea eskatzen dutela eta oso emaitza positiboak lortzen dituztela, besteak beste, lurzorua berreskuratzea, industriak egoitzazko hiri-ingurunetik ateratzea, lursailak ikastetxeak eta etorkizuneko hornidura publikoak jartzeko erabiltzea, etab.

Udal Plangintzako Aholku Batzordea, aurreko ataletan adierazitako oharra ikusita, eta bertaratutakoen aho batez, Udalaren osoko bilkurak HAPOko 14C arloaren (Earle) plangintzaren aldaketa hasieran onestearen alde azaldu da.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Plangintzako Aholku Batzordeak hartutako irizpena osorik onartzea.
- Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez hasieran onestea plangintzaren aldaketa hau.
- Hasieran onetsi ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da hilabeteko epean, BAO eta egunkarietan iragarkiak argitaratuz.
- Plangintzaren aldaketa honek egiturazko antolamenduari eragiten dionez, hurrengo izapide hauek egin beharko dira:

- * Herritarrek parte hartzeko programa gauzatzea, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikuluan adierazitakoaren arabera. Horretarako, herritarrei postontzietan uzten zaien udal-aldizkarian espedienteari buruzko artikulua edo laburpena argitaratuko da, espedientea jendaurrean agertzeko epeak irauten duen bitartean.
- * Sektore-eskumena duten administrazioek txostena emateari dagokionez, URA Uraren Euskal Agentziari (Eusko Jurlaritz) eta metropoli-trenbidearen gaineko eskumen duen Bizkaiko Garraio Partzuergoari txostena eskatuko zaie.

EZTABAIDA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Espediente hau oso garrantzitsua da Lamiakorako, izan ere, bere jarduera industrialia orain urte batzuk desagertu zen eta orain momentua baliatu beharko da bizikaltatea hobetzeko, eta hori da ekipamendu berriak lortuko dituen Plangintzaren aldaketaren helburua. Horretarako beharrezkoa izango da eraikin zaharrak, gainera arriskutsuak ere direnak, eraistea.

Gaineratu nahi dut ezen, Plangintzako Aholku Batzordean, auzotar batzuek eskatu zuten eraikin berrien eta trenbideen beharrezko tartea gordetzeko eskatu zutela. Tarte hori, antza denez, zortzi metrokoa izango da, hortaz, kontu hau zaindu beharko da eragozpenak saihesteko.

Gure taldeak proposamenari aldeko botoa emango dio.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Aldaketa honek hainbat abantaila jasotzen ditu, izan ere, industria desagertzean hainbat aukera eskaintzen dira eta eraikin zaharrak eraistean orain kutsatuta dagoen lurzorua berreskuratuko da. Berau garbituko da eta behar bezala erabili ahal izango da.

Bestaldetik, ingurumena eta dentsitatea behar bezala zainduko dira hazkunde iraunkorra errazteko. Eta trenbideekiko tarteari dagokionez, esan duenez, Garraio Partzuergoari ere dagokion gaia da aplikatu beharreko araudian ezarritako distantziak errespetatzeko. Nolanahi ere, metroa, zaraten ikuspegitik, tren zaharrak bezalakoa ez dela jo behar da eta eragozpenak ebaluatzeko hurbilen dauden lokalen erabilera kontuan hartu behar da, hau da: garajeak diren, eraikinaren atzeko aldea den,...etab. Edozelan ere, aldaketa honek baliatu beharreko aukera ematen du.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Egia da hemen aspaldian enplegu asko egon zirena baina orain planteatzen ari dena eraikin zaharkituak eraistea da eta Plan Orokorra izango da eraikigarritasuna erregulatzen duena.

Egia da enplegu industrialia desagertzen dena baina perspektiba eduki behar da egoitzazko espazio baten eta enplegu industrialaren arteko bizikidetzaz zaila baita, baina horrek ez du eragozten ingurune honetan enplegua sortzea eta Santa Anan, Amaia Etorbidean edo Ibaiondo Parkean sortu dena ez da ahaztu behar. Horrela bada, jo behar dugu Getxorekiko muga Leioak enplegua sortzeari lehentasuna eman diola eta Getxo izan dela etxebizitzak eraiki dituen. Konfiantza eduki behar dugu desagertzen dena baino enplegu gehiago sortu ahal izango dela.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez, erabaki zuen** H.A.P.O.-Earle 14C Aldearen plangintzaren aldaketa hasiera batean onartzea, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazioko Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

2.- IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK ATERATZEKO UDAL-ORDENANTZA ALDATZEA, IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK ATERATZEARI DAGOKIOENZ. Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko martxoaren 30eko 43. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udaltzaingo Zerbitzuaren 2010eko martxoaren 10eko txostenaren edukia irakurri da. Bertan, Ibilgailuak Bide Publikotik Kentzeko Udal Ordenantzako bi atalen edukiak modu egokiak eguneratzea beharko dela adierazi da. Izan ere, izaera orokorra duten eta maila altuagoan dauden araudiek ordenantza indargabetu dute.

Zehazki, honako aldaketak proposatu dira:

Egungo idazkuntza:

“6. artikulua

Udal Agintaritzak ibilgailu bat bertan behera utzita dagoela pentsatzeko arrazoia izango du kasu hauetan:

1. Ibilgailua 16 egun baino epe luzeagoan bidearen leku berean aparkatuta dagoenean”.

Proposatutako idazkuntza:

“6. artikulua

Udal Agintaritzak ibilgailu bat bertan behera utzita dagoela pentsatzeko arrazoia izango du kasu hauetan:

1. Ibilgailua hilabete bat baino epe luzeagoan bidearen leku berean aparkatuta dagoenean”.

Egungo idazkuntza:

“8. artikulua

Behar bezala aparkatuta egonda ere, Udaltzaingoak ibilgailuak bide publikotik kentzeko ahalmena izango du ondorengo kasu hauetan:

.....
4 Auto-karabana bat leku berean zortzi egun jarraian edo luzaroago aparkatuta egon denean.

Proposatutako idazkuntza:

“8. artikulua

Behar bezala aparkatuta egonda ere, Udaltzaingoak ibilgailuak bide publikotik kentzeko ahalmena izango du ondorengo kasu hauetan:

.....
4 Auto-karabanei eta autoei aparkatzeko denbora muga berdina aplikatuko zaie, ondorio guztietarako”.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

–Osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Udaltzaingoak adierazitako artikuluan aldatzea, Ibilgailuak Bide Publikotik Kentzeko Udal Ordenantzan jasotakoak.

- Toki-araubideen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 79. artikuluetan adierazitakoari jarraiki, espedientea jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia emango zaie, 30 egun baliodunez, argitaratu beharreko iragarkia BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, ordenantza behin betiko onestea eta testua BAOn argitaratzea, berau betearazteko.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez**, erabaki zuen Ibilgailuak Bide Publikotik eramateari buruzko Udal Ordenantzaren aldaketa onartzea, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazioko Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

3.- HAPO-KO 44. SEKTOREAN (TORRESOLO) HITZARMEN-SISTEMAREN BIDEZKO KUDEAKETA HASIKO DUEN HIRIGINTZA HITZARMENA BEHIN BETIKO ONESTEA.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko martxoaren 30eko 50. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Tokiko Gobernu Batzarraren 51. ebazpenaren bidez, 2010eko otsailaren 16an hasieran onetsi zen HAPOko 44. sektorearen Hirigintza Hitzarmenaren proposamena, hitzarmen-sistemaren bidez 357 etxebizitza eraikitzeke asmoz. Etxebizitza horietako 232 babes ofizialekoak izango dira eta 125 etxebizitza libreak.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, 2010eko martxoaren 3ko BAOn hitzarmenaren eduki osoa argitaratu zen. Hogeitau egun balioduneko epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu eta Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako irizpena eman du: osoko bilkuraren erabakiaren bidez, egokia da aipatutako hitzarmena onestea, berau gauzatu dadin eta sektorearen hirigintza-kudeaketa has dadin. Horretarako, Hitzarmen Batzordea osatuko da eta urbanizazio- eta birpartzelazio-proiektuak egingo dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez**, H.A.P.O.-Torresoloren 44 sektorearen kudeaketa, hitzarmenaren sistemaren bidez, hasia ahalbidetzen duen hirigintzako hitzarmena behin betiko onartzea erabaki zuen, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazioko Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

4.- ALKATETZA UDALBURUTZAREN 240/10 DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ, JESÚS MARIA BILBAO CURIEL JAUNAREN ORDEZ M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ ANDREA JARTZEA PROPOSATZEN DA. ALKATEORDEA ETA HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA, OBRA ETA ZERBITZU ETA MUGIKORTASUN ETA INGURUMENeko INFORMAZIO BATZORDEKO BURUA

IZATEKO: Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2010eko apirilaren 20ko 31. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2010eko martxoaren 11n, Alkatetza-Udalburutzak 240/09 Dekretua onetsi zuen. Hona hemen, hitzez hitz:

“Lehenengo alkateordeak, Jesús Bilbao Curiel jaunak, datorren apirilaren 12an Leioako Udalean bere kargua dedikazio osoz betetzeari utziko diola iragarri du. Hori horrela, lehenengo alkateordearen postuari uko egingo dio, baina zinegotzi-lanetan jarraituko du.

Ondorioz, Alkatetza honek erabaki du Carmen Urbieta González zinegotziak ordezkatuko duela alkateorde-lanetan, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu eta Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeko burutzan. Era berean, osoko bilkurari proposatuko zaio bera izatea Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoan eta Garraio Partzuergoan Udala ordezkatzeko zituen ordezkaritzak izango dituen. Hori horrela, Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikulua araberak, izendatuak bere kargua beteko du udalean dedikazio osoz.

Alkatetza honen ustez, udalaren berezko zereginak eraginkortasunez garatzeko, komenigarria da martxoaren 15etik aurrera M^o Carmen Urbieta González andreak betetzea lanpostua dedikazio osoz. Hala ere, Jesús Bilbao Curiel jauna 2010eko apirilaren 12an ordezkatuko da guztiz zuzenbide-aldetik. Horrela, eskumenak aldatzeko orduan trantsizio egokia egongo dela bermatuko da eta ez da eragozpenik egongo udalbatzako kideei eman beharreko dirua finantzatzeko aurrekontu-kredituen ikuspuntutik. Izan ere, azken hori 2009ko irailetik 2010eko otsailaren 19ra arte aldi baterako ezintasun-egoeran egon izanaren ondoriozko gastuak ordaintzeko nahikoa gordailu dago.

*Arestian aipatutako guztiak kontuan hartuta, **HONEN BITARTEZ**, ebatzi egin dut **M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ ANDREA** 2010eko martxoaren 15etik Udal honetako Udalbatzaren kidearen kargua dedikazio osoz beteko duela eta aurtengo apirilaren 12tik aurrera **JESÚS BILBAO CURIEL JAUNA** ordezkatuko duela lehenengo alkateorde-lanetan, eta hala badagokio, horrek Leioako Udalean dituen ordezkaritzetan.”*

Barne Araubideko Informazio Batzordea jakinaren gainean geratu da eta apirilaren 22an egingo den osoko bilkuraren bileran aurreko dekretuaren berri emango dela jakin du. Bilera horretan, hala badagokio, Ur Partzuergoko eta Garraio Partzuergoko ordezkaritzak proposatuko dira.

Eztabaida:

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Kasu honetan Lehen Alkateordearen karguak eta Hirigintza, Etxebizitza, Obra eta Zerbitzuen Zinegotzigoak dekretuaren berri ematea beste xederik ez duen bezala, Taldeko Bozeramailegoari dagokionez ez dago aldaketarik.

Garraio Partzuergo eta Ur Partzuergoko ordezkaritza, orain arte Jesus Bilbao Curiel jaunak betetzen zuena, ordea, bai bozkatu behar dela, orain M^a Carmen Urbieta González andrea izatea proposatuta.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkura honako honen jakitun gelditu da:

1.- Jesús Maria Bilbao Curiel jauna M^a Carmen Urbieta González andreak Udalaren Lehenengo Alkateorde gisa ordezkatzeari buruzko Alkatetza-Udalburutzaren 240/10 dekretuaren jakitun, alkate jauna ordezkatuta absentzia, eritasun edo bere ahalmenak burutzea ezinezko eragiten dion eragozpenaren kasuetan, bai eta hutsik dagoen kasuetan ere alkate eta Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzuak; Mugikortasun eta Ingurumeneko Batzordeko buru gisa karguaz jabetu arte.

2.- Jesús Maria Bilbao Curiel jaunak EAJ-PNVren Bozeramaile izaten jarraituko duela.

3.- EAJ-PNVren hamar zinegotziek eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzien emandako hamabi boto eta PSE-EEko sei zinegotzi eta PPko hiru zinegotzien bederatzi abstentzioen **gehiengo bidez**, honakoa erabaki du:

Alkatetza-Udalburutzak proposatuta M^a Carmen Urbieto González andreak Jesús Maria Bilbao Curiel jauna ordezkaturako du Bizkaiko Garraio Partzuergoan eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoan.

Botoaren azalpena:

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Gogoratu nahi dut legegintzaldia hasi zenean ordezkariak izendatzeko erabakia aho batez hartu zela eta hau berau berritzea baino ez dela eta harrigarria dela guztion adostasuna ez egotea.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Gobernu Taldeak orain erabakitzen duen aldaketa denez, agintaldiaren hasieran gertatu zenetik kanpo, orain iruditzen zaigu ez dugula gure babesa eman edo kendu behar, eta horregatik abstentzioa eman dugu.

Edozelan ere, orain arte Hirigintza Batzordeko Presidente Jesus Bilbao jaunari eskertu nahi diogu ezen, desadostasun logikoetatik harago, lan emankorra egin duela eta Batzordearen garapen ona egotea ahalbidetu duela, oposizioaren taldeei informazioa emanaz. Horregatik, espero dugu Lehendakari berriak bide honetatik jarraitzea.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Jesús Bilbao Curiel jaunaren lanari buruzko adierazitako hitzak eskertzen dizkizut, baina ordezkarien izendapenari dagokionez, 2007. urtean, Udala osatu zenean, talde politiko guztiek onartu zuten erabakia planteatu zen eta, horrela, PSE-EEren aldetik Jose Manuel Toledo izan zen Garraio Partzuergorako deitutakoa eta aldaketaren bat egon zen alderdi honek aurkako botoa edo abstentzioa eman gabe, hura J. Alfonso López Arevalillo jaunaz ordezkatzeari gertatu den bezalaxe.

Horregatik guztiatik, uste dut ez dela oso dotorea Alkatetza honek proposatu duen ordezkariaren aldaketaren aldeko botoa ez emateko keinua. Eta gogoratu behar da ordezkari guztiak geureganatzeko aukera izan genuela eta ez genuela egin, beraz, berriro diot atsekabetzen nauela elkarrekotasun hori ez edukitzeak.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak esandakoaren laburpena:

Nik baietz bozkatu dut, legegintzaldiaren hasieran, gobernu-akordioa egin baino lehen, beste organoetako ordezkariaren gaia zuzendu behar zela adostu zelako eta gure taldeari kanpoko ordezkariarik egokitu ez arren, oso ondo iruditu zitzaigun modu horretan jokatzeko eta horregatik baiezko botoa eman genuen eta gaur gure botoa berresten dugu.

5.- TRAFIKOARI BURUZKO ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA, LEGE BERRIAREN ONDORIOZ: Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2010eko apirilaren 20ko 40. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udaltzaingoak jakinarazi du azaroaren 23ko 18/2009 Legearen ondorioz ibilgailuen garraioari buruzko legeak aldatu direnez beharrezkoa dela hiriko herri-bideetan

zirkulazioa antolatu eta erabilerak eta segurtasuna ezartzeko udal-ordenantza aldatzea. Horretarako, Udalbatzako kideen aldaketa-proposamena bidaliko zaie.

Barne Araubideko Informazio Batzordea jakinaren gainean geratu da eta gai hau apirilaren 22ko osoko bilkuran jorratuko dela jakin du.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez**, erabaki zuen legeria berritik eratorritako trafikoaren ordenantza aldatzeko proposamena onartzea, Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

6.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTAK, 2010.03.18tik 2010.04.14ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatuzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkurak Alkatetza-Udalburutzaren dekretuen eta Tokiko Gobernu Batzarraren akten (espedientean agertzen direnak) berri izan du.

7.- PRESAKO MOZIOAK:

PPk AURKEZTUTAKO MOZIOA: Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, Leioako Udaleko Popularren Udal Taldeko bozeramaileak, idazkia aurkeztu du, sarrera-erregistroan 3.455 zenbakiarekin sartu dena, Korporazioaren Osoko Bilkurari hurrengo hau aurkezten diona eztabaidatzeko

MOZIOA

2009. urtean kontu publikoek bere historiako narriadura handiena pairatu dute, 2009. urterako sarrera eta gastuen estimazioaren desbiderapenek agerian jartzen dute Estatuak egoera ekonomiko eta finantza publikoen kontrola galdu duela.

Gobernuak, gure kontu publikoen desdoikuntza larriko egoera hau zuzentzeari ekin beharrean, gastu publikoaren kontrolean eta Herri Administrazio guztien jarduketan austeritate neurriak hartzean oinarritutako konsolidazio fiskaleko prozesu baten bidez, aurkeztu zituen 2010. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorretan, 2009ko EA Oren aldean, Estatuko finantzako gastuaren %17eko gehikuntza jasotzeaz gainera, demokraziako zergen igoerarik handiena gaineratzen dute, eta defizit publikoaren pixkanakako zuzenketa osoa 2010. urterako onartutako zergen igoeraren ondorioz sarreraren igoera hipotetiko bati egozten dio.

Ebidentzia enpirikoak zein azterlan ugarik agerian uzten dute krisialdi ekonomikoko egoera batean kontsumorako zergen igoera, Estatuko aurrekontuek islatzen duten igoera bezalakoa, aholkatzen ez den neurria dela, izan ere, kontsumoaren gainean

eta, ondorioz, inbertsio eta enpleguaren gainean dituen ondorio negatiboengatik, susperraldi ekonomikoa kaltetuko du zerga-bilketan ia eraginik eduki gabe.

Horrela, beste erakunde batzuen artean, ELGAK gure ekonomiarako BEZaren igoyerak izango dituen ondorio negatiboen berri ematen zuen, eta Gobernuari, 2009. urteko azaroan argitaratutako Ikuspuntuen sei hilez behingo bere txostenean, gomendatu zion BEZaren igoera 2011. urtera atzeratzea, "ekonomia sendotasun handiagoz suspertzeko xedez".

Igoera honek arropa, oinetakoak, etxetresna elektrikoak, argiaren ordainagiria, telefonoaren faktura, automobilak, etxebizitza, elikadura, ostalaritza, jatetxeak, lurreko garraioa,... bezalako produktu eta zerbitzuen gainean izango dituen ondorio negatiboek gainera, BEZaren igoyerak Enplegu eta Tokiko Laguntzako Estatuako oraingo Fondoaren babespean kontratatutako proiektuei ekarriko dien kaltea gaineratu behar dugu.

Murrizketa honi Tokiko Erakundeek urte honetarako Estatuaren transferentziengatik jasotzeari uzten dioten 3.000 milioi euro gutxiago gehitu beharko dizkiogu. Datu hauekin, tokiko gobernuen ikuspuntu ekonomikoek eta finantzako egoera larriari aurre egiteko tresnek okerrera baino ez dute egin, eta honek egoera benetan hondagarria igartzen du urte honetako bigarren seihileko honetarako. Baina, hala eta guztiz ere, kaltetuenak herritarrak beraiek izango dira, bi aldiz zigortuta, oinarritzko kontsumo-ondasunak eskuratzeko zailtasunean eta bere Udalaren eskutik jasotzen dituzten zerbitzuen prestazioaren kalitatean.

Horregatik guztiagatik, Popularren Taldeak hurrengo erabakia proposatu du:

Lehenengoa: Nazioko Gobernuari eskatzea 2010. urteko uztaileko aurreikusitako BEZaren zerga-tasen igoera ondorioz gabe uzteko.

Bigarrena: Gobernuari eskatzea alderdi politikoekin eta tokiko esparruan ordezkariarik handiena duten elkarteekin negoziazioari berehalakotzat ekiteko, finantzako sistema eta tokiko gobernua batera eraberritzeko, honek Tokiko Erakundeei erakunde, eskumen eta finantzako esparru egokia eman diezaien oraingo egoera zailari aurre egiteko.

Hirugarrena: Erabaki hauen berri ematea Gobernuko Presidenteari, Bigarren presidenteorde eta Ekonomiako Ministroari, Hirugarren Presidenteorde eta Lurralde Politikako Ministroari eta Gorteetako Parlamentuko Bozeramailei.

EZTABAIDA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Uztailetik aurrera BEZa handitzea ondorio izango duen erabaki hau iragan martxoan Diputatuen Kongresuan onartu zen, Alderdi Sozialista, EAJ eta Kanariar Koalizioa taldeen aldeko botoaren bidez, eta egokia iruditu zaigu osoko bilkura honetara ekartzea nazioa gobernatzen duenari erantzukizunera deitu eta beraz ken dezan, Tokiko Administrazioak baitira hiritarrendandik gertuen daudenak eta, ondorioz, zerga-neurri honen ondorioak pairatu behar dituztenak.

Mozioaren justifikazioak bere ondorioak negatiboak direla argi uzten du eta txosten eta azterlanek herritarrei erosteko ahalmena eta Tokiko Erakundeei jarduteko gaitasuna kendu behar dizkien neurri hau ez hartzea aholkatzen dute.

Honek guztiak justifikatzen du Leioatik Gobernuari deialdi hau egitea eta, aldi berean, alderdi politiko eta tokiko erakundeekin negoziazioa abiarazi behar dela jotzen da azken hauen finantzaketa hobetze aldera.

PRESAKO BOZKETA

Azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onartutako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoari kasu eginez, mozioa premiazkoa den bozkatu dute, eta Udalaren Osoko

Bilkurak, aldeko hamar boto (PSE-EEko sei zinegotziek, PPko hiru zinegotziek eta EB-Berdeak taldeko zinegotzia den Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak emanda) eta EAJ-PNVko hamar zinegotzietatik eta EB-Berdeak taldeko Isabel García García andreaki dagozkien hamaika abstentzioetako gehiengo bidez, erabaki zuen gai honen **premia onartzea** eta jarraian gaia eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote.

EZTABAIDA:

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Guk abstentzioa eman dugu zalantzak genituelako gai hau aztertzea premiazkoa zen edo ez eta modu honetan gaiaren mamiari eztabaidatzeari ekin diezaiotegu.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaz jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Ez ditut argudioak errepikatu behar, aurreko adierazpenetan uste dut dagoeneko adierazi dudala mozio honen arrazoiak zein diren. Ondorioz, ez ditut horiek errepikatu behar.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Premiari baiezko botoa eman diogu gure ohiko jokabidea delako, halere, pentsatzen dugu proposamenari aurkako botoa emango diogula, argudioak ez dagozkiolako aurkeztutako foroari. Halere, ulertzen dugu BEZaren igoera Tokiko Erakundeen jardun-eremua gainditzen duen nazioz gaindikoa izaerako harmonizazio bati dagokiola.

Horregatik guztiagatik, gure botoa negatiboa izango da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak esandakoaren laburpena:

Alderdi Sozialistarekin bat nator ezetz bozkatzeko orduan, baina PPrekin ere bat nator adieraztean igoera hau ez dudala gogoko, kontsumorako zergen igoera delako eta ez dutelako berdin jokatzeko PFEZ bezalako zergekin eta likidezirik ezeko egoera baten aurrean, Estatuak krisialditik datozen beharrei erantzuteko fondoak dituen egoera baten aurrean, ezkerrean pentsatzen dugu errenta handienak direla zerga-karga handienak eduki behar dituztenak.

BEZa guztion kontsumoan neurri berean eragiten duen zerga da eta, hala ere, ikusi dugu PFEZari dagokionez zerga-tarteak murriztu direla eta gehieneko tasak jaitsi direla, eta BEZaren igoerarekin bat etorri ez arren, bat ere ez gatoz mozioarekin batera adierazitako argudioekin .

Bestaldetik, premiari nik baiezko botoa eman diot kasu honetan kontzientziaren arabera gehiago jardun nezakeelako eta hau udal osoko bilkura baten berezko eztabaida ez dela ulertzen dudana arren, pentsatu ere egiten dut gizartean eragiten duten gaitan jarrera har dezakegula, baina ez da gauza bera Gobernuari eskatzea gauza bat edo beste bat egiteko eta parlamentuaren agintea betetzeari uzteko eskatzea .

Gure taldeak Kongresuan bozketa galdu zuen baina argi dago Udalak ez duela iritzirik eman behar Espainiako Parlamentuak BEZa igotzea erabakitzen badu, baina Gobernuak gauzak hobeto egiteko proposamenak egin ditzake.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Nik uste dut presako mozioren gaia etsitzeko modukoa dela, gure taldearen irizpidea zelako gaiak benetan premiazkoak baziren, bada, Osoko Bilkuran horrelakotzat aztertzeko, baina horrela izan ezean lehenik Informazio Batzordetik igaro beharko zirela.

Udal organo honen funtzionamendua antolatu nahi genuen, eztabaida lapurtu beharrean, eta horrela ikusi dugu PPko taldeak premia aurkeztean proposamena dagoeneko aski azaldu duela.

Uste dut premiazkoa izan daitekeela orain Gurutzetan egiten ari diren ebakuntzaren bat, baina BEZaren igoeran zalantza gehiago genituen telebistan Esperanza Aguirre ikusi dugulako prentsaren aurrean hanburgesak eta sagarrak erosten eta BEZaz kexatzen, bulegotik erosketa hori egiteko atera bada gaia larria dela esan nahiko lukeena.

Bromak aparte utzita, ulertzen dugu neurria positiboa izan daitekeela baina eztabaidak dagozkion tokian egin behar direla; eta deigarria gertatzen da gai hau aurretik Informazio Batzorde batean proposatu ez izana.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

EAJ-PNVren Jesús Bilbao Curiel jaunaren interbentzioa biribiltzearen, iragarri ere egin behar dut Euskal Talde Nazionalistak aurka bozkatu behar duela bi arrazoiengatik, ez dakit arrazionalak edo sentimentalak, baina bi arrazoiengatik:

Bata Kongresuan eta Senatuan gure Alderdiak horren gaineko iritzia dagoeneko eman duelako eta hauxe da adituak dauden tokia eta ez ditugu zuzen du behar eta, bi, mozioaren aurreneko sei hitzekin ezin gara ados egon: honakoa dio, "eskatzea Nazioko Gobernuari", ulertzen dut Nazio Espainiarrari erreferentzia egiten diola, ez gara sentitzen Nazio Espainiarreko kide, eta aurreneko sei hitzekin ados ez bagaude, zertarako jarraituko dugu eztabaidatzen.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei ordezkariak eta EB-Berdeak taldeko hiru ordezkariak emandako hemezortzi botoen **gehiengo bidez**, PPren hiru ordezkariak emandako aldeko hiru botoen aurrean, **erabaki zuen** Leioako Udalean Alderdi Popularrako Udal Taldearen Bozeramailea den Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak aurkeztutako mozioa **baztertzea**.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

LEHENENGO GALDERA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Gazteguneko Ekipamenduaren aurreikuspenez hitz egin du, izan ere, obrak aspaldian bukatu ziren eta oraindik lokala ez dago funtzionamenduan.

LEHENENGO ESKAERA:

Pinosolo Kiroldegiko obren adjudikazioaz hitz egin du, gure ordezkariaren abstentzioarekin hartutako Administrazio Batzordearen erabakia dagoelako hauek adjudikatzeko, errekurrituta dagoena eta errekurtsioa oraindik ebatzi gabe dago. Gure taldeak aipatutako errekurtsio horren berri jaso du aurka egin duen enpresaren bidez eta gure eskea da gai hau ahalik eta lasterren ebatzea.

Agintaldi honen hasieran, Kiroldegiaren izapideak hastean, zalantza zegoen berau 2011. urteko maiatzerako bukatuta egongo zen eta Gobernu Taldeak esaten zuen ez zekitela egun horretarako inauguratu ahal izango zuten. Egun zalantza da lehenengo harria 2011. urteko maiatzerako ipini ahal izango duten, oso atzerapen nabarmena islatzen duena, izan ere, aurretik kiroldegi bat eraikitzeke aurreko asmo bat egon zen eta ezinezko gertatu zen eta bigarren ahalegin honetan oso atzerapen nabarmena dagoela ikusten dugu.

Ondorioz, errekurtsua ahalik eta lasterren ebaztea nahi dugu kiroldegiaren obra burutu ahal izateko.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Gazteguneko ekipamenduaren galderari dagokionez, nik uste dut Kultura Batzordean aztertu behar dela baina iruditzen zait altzariak ipintzen bukatzeaz daudela, eta ekipamendu hauen kudeaketa Aterperekkin batera lehiaketara ateratzearen egokitasuna, aukera ere baloratzen ari gara.

Beste gaiari dagokionez, Leioa Kirolak-en Administrazio Batzordea errekurtsua ebazteko baldintzetan dagoenean, bilkura egokia deituko da, baina gaur egun egiteko agindua duenak ez du txostena ebaluatu.

Gerta liteke gure gustuko ez den txostena ematea eta berriro egiten saiatzen egotea, baita, bestelako toki batzuetan ikus daitekeena kontuan harturik, dagoena zuzentzen duten txostenak eska genitzakeen, baina ez gara hori egiten ari.

Azken batean, txostenaren zain gaude eta berau itxaron behar dugu Batzordea deitzeko. Eta honek adierazten duenaren arabera erabakia hartuko dugu.

Kiroldegiaren inaugurazioari dagokionez, kudeaketa nori dagokion ikusita jarduteko dauden moduak ikusi behar dira, izan ere, ni azkenean egin ez duten zerbaiten lehenengo harriak ipintzea ikusitakoa naiz, eta aipa dezaket orain dela gutxi, alkate gisa, Espalazio Iturriaren aurkezpena gonbidatu nindutela EHU-UPVko campusean. Ez nekien hitz batzuk adierazi behar nituen eta bezperan Unibertsitatera deitu nuen ekitaldiaren garapenaren berri jasotzeko eta azaldu zidaten haiek ere ez zekitela baina Leioako alkateak ez zuela hitzik esan behar eta aurkezpenean erdi galduta egon nintzen.

Neutroien Azelerazioarako laborategia bi gobernuren arteko akordio gisa aurkeztu zuten, baina gaur dakigu erabaki hori egituratzea zaila dela Estatuko Gobernuaren Kontu-hartzailetzak berau ez duelako ontzat ematen eta hau 2011. urtean funtzionamenduan egongo zen zerbaiten lehenengo harria ipintzeko ekitaldi hori egin eta hiru edo lau hilabetetara.

Ondorioz, abiarazten diren jarduketak guztien bidean harriak daude; gertatzen dena da komenigarria dela lehenengo harria ez ipintzea ez badakizu bigarrena jar dezakezula.

BIGARREN ESKAERA:

PSE-EEko Juan Carlos Martínez Llamazares jaunak esandakoaren laburpena:

Leialtasunez hitz egin dutenez, Presidente jaunari eskatuko nioke Leioa Kirolak SAUko Administrazio Kontseiluko kode izateagatik eta honen erabaki baten aurkako errekurtsu garrantzitsu bat aurkeztuta egonik, sakoneko kontua alde batera utzita, honek aurrera egin baitezake edo ez, pentsatzen dut Kontseiluko kideei horren kopia eman beharko zietela eta ez errekurtsua aurkeztu duen enpresak emandako kopia baten bidez berau ezagutu behar izatea.

Malguak izan garez eta telefono bidez bilerak ere deitu ditugunez eta agendak egokitzen saiatzen garez, logikoa irudituko zitzaigun errekurtsuaren kopia bana helaraztea eta gaiaren gaineko azalpena ematea, izan ere, bestela pentsa liteke bazter batean dagoela.

Horregatik, eskatu nahiko nuke beste baterako komunikazio hobea egotea, egokia den erantzun teknikoa edozein dela ere.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Enpresa ugari eta ez dakit zenbat arkitekto batzen dituzten bederatzi "ABEE"en eskaintzak daude eta errekurtsua ABEE baten enpresetako bateko arkitekto nagusiaren arkitekto laguntzaileek aurkeztuta dago. Ondorioz, ez da ABEEren edo osatzen duten

enpresetako baten edo arkitekto nagusiaren errekurso bat, eta gogorarazi behar da oinarrietan eskatzen zela proposamena egiten zuen lantaldean nolabaiteko garrantziko lanak eginak zituen arkitektoa egotea.

Errekurtoa Arkitekto Laguntzaileek aurkeztu dute, bere kabuz lehiaketan parte hartzerik ez zutenek, hau da ABEE osatzen duten enpresen arkitekto nagusiaren sinadurarik gabe.

Errekurtoaren kopiak Alkatetzaren Idazkaritzan aurkeztu ziren udal taldeei zuzenduta eta alkate hau izan zen talde horiei ematea erabaki zuena. Eta, ondorioz, adierazi nahi dut Alkatetza hau izan zela aipatutako idazkiak ematea erabaki zuena.

Edozelan ere, gogorarazi nahi dut Administrazioen eguneroko lanean errekurtoa aurkezten denean, eta adibide bezala kasu honetan zuen Alderdiak buru duen Ingurumen Ministerioak Lamiakoko HUAri (Hondakin Uren Araztegiari) dagokionez egin behar duena, partikular askok eta Administrazioak errekursoak aurkeztu dituzte eta erantzunaren zain gaude baina jakin dugu ez dutela egin behar, Konfederazio Hidrografikoak egin behar duena honakoa dela: errekursoak jasotzen ditu, jakinarazten ditu eta Ministeriora igortzen ditu eta honek, sei hilabete, urtebeteko epearen barruan edo egiten duenean, inplizituki ebatziko ditu Ingurumeneko Ebaluazioaren deklarazioaren esparruan.

Horregatik, kasu honetan zeure burua bigarren mailako batzordekidetzat jotzen baduzu, pentsa ezazu Leioako alkatea nola sentitzen den Lamiakoko HUAren gaian.

Berriro adierazi nahi dut Administrazio Kontseiluak deitzen direla hartu beharreko ebazpenak daudenean eta dagokion Kontseiluan errekurtoaren aurkezpena eta ebazpena jakinaraziko direla, erabateko normaltasunez, eta Administrazioaren egiteko normala dena ezin dutela bere tokitik atera.

Azkenik, aurreko osoko bilkura batean bilkura-gelaren kanpoaldean egin diren istiluei dagokienez emandako erantzuna zehaztu nahi dut. Erantzun horretan, jardunaldi horretan gertatutakoa azaldu ondoren, esan nuen Udaltzaingoak Ertzaintza bertaratzeko eskatu zuela eta honen Buruzagitzak erabaki zuela ez bidaltzea. Hala eta guztiz ere, Udaltzaingoaren buruak esan dit Ertzaintzarekin hitz egin zuela eta automobil kamuflatu batean bertaratu zirela eta, ondoren, patruila-auto bat ibili zela istiluak gertatu ziren inguruetatik eta Udaltzaingo eta Ertzaintzaren baterako erabakia izan zela poliziek esku ez hartzea.

Eta gaueko bederatziak direnean, Alkatetza Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut behin-behineko idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,